

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

10,4 milioi bideratu dituzte garuneko paralisia edo desgaitasun asko dituzten pertsonen egoitza-arretarako

Zerbitzua Carmen Aldave egoitzan eta Ramon y Cajal zentroan emango da, eta 70 plaza egoitzetarako eta 62 eguneko zentrorako izango ditu

Asteazkena, 2017.eko maiatzak 24

Nafarroako Gobernuak garuneko paralisia, horren antzeko gaixotasunak eta desgaitasun asko dituzten pertsonen arreta integralerako kontratuak eguneratzeko baimena eman dio gaurko bilkuran Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziako zuzendari kudeatzaileari. Aurrekontua 10,44 milioi eurokoa izan da (BEZik gabe, 2017. eta 2018. urteetan zehar.

Diru-kopuru horrekin egoitzetarako dauden 70 plazak eta eguneko zentroetarako 62 plazak finantzatzeko dira. Horietatik, 40 egoitza-plaza Carmen Aldave Egoitzak kudeatuko ditu. Bestalde, ASPACE Fundazioaren Ramon y Cajal zentroak 30 egoitza-plaza eta eguneko zentroetarako 62 plaza kudeatuko ditu.

Gaur baimendutako bi hitzarmenei esker, 2015eko azaroan eta 2014ko martxoan Carmen Aldave zentroarekin eta ASPACE Fundazioarekin hurrenez hurren desgaitasuna duten pertsonen arreta osoa emateko sinatu ziren kontratuak berri dira.

Aurrekontu horretatik, 3,67 milioi 2017. urtean ordainduko dira. Eta gainerako 6,78 milioiak 2018. urtean izango dira. Bi kontratuak 2018ko azaroaren 30ean amaituko dira, baia urtero luza daitezke bi alderdiak ados badaude. Gehienez, 4 urtekoak izango dira.

Oraindik ez dago foru-komunitatean Eskubide Sozialetako Departamentuak baimendutako bestelako zentrorik, ez eta baimena izapidetzen ere, eguneko eta egoitza zentro gisa arreta emateko, garuneko paralisia duten 65 urtetik beherako pertsonentzat. Beraz, ezinbestekoa da kontratua bi erakundeekin berritzea.